

**Aginaga, Euskal  
Herriko Atlas  
Geopoetikoan**

**Milaka boto,  
erabakiaren  
bidean**


**Astelehenean,  
San Ixidro eguna**

# noaua



**Euskararen kaleko  
erabilerak behera egin du**

Lasartetik irteera  
Noaoaren laguntzarekin



**POLONIA**

Abuztuaren 29tik  
irailak 5 arte



**DIGITOMON** Taldeko agentzia

943 373 613 info@noaoa.eus www.noaoa.eus  
Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

## AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

•GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ  
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

•HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ  
•HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK,  
UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA  
EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)


**943 36 21 63 (24H)**

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



• BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK

•EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA



**tobyngana**  
english SCHOOL

### Udako ingeles intentsiboak

- Hizkuntza lantzeko edo Cambridge azterketen prestakuntza
- Aste askeak, 4 egunekoak

### Ekitaldiak ingelesez

- Antzerkia, altxorren bila, jokuak, bideo grabaketa, etab.
- Hamabostaldiak, egunero

JATORRIKO IRAKASLEAK  
Maila eta adin guztiak

# Summer!

**INGELES - Ekaina/Uztaila 2017**  
**Eman izena lehen bait lehen!**

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

**Albistea iruditan**

# Santueneko Gure Elkartearen omenaldia jaso dute

**I**ruditan duzue 75 urte bete dituen auzotar taldea. Santueneko Gure Elkar-teak omendu zituen, apirilaren 30ean Atxega Jauregian ospatu zuten bazkarian. Helarazi diguten ondoko irudian ageri dira Vicente Mata, Alice Do Santo, Mari Carmen Caminero eta Maria Teresa Muñoz oroigarri banarekin eskuetan. Zorionak!

## Arrate Egoitzako ikasleen lanen erakusketa

Igandera arte Sutegiko erakustaretoan ikusgai izango dituzue, Aginagako Arrate Elkarteko kideen pintura eta eskulan bilduma eder askoa, ordutegi honetan:

-Ostegun eta ostirala: 17:00-20:00.

-Larunbat eta igandea: 09:00-13:00.



Vicente Mata, Alice Do Santo, Mari Carmen Caminero eta Maria Teresa Muñozek oroigarri bana jaso zuten apirilaren 30ean Atxegan egin zen bazkarian.

**Laburrean**

## Larunbat honetan 1971n jaiotakoen bazkaria

Maiatzaren 13an elkartuko dira Saizarren. 13:00erako finkatu dute biltzeko hitzordua, Bordatxo tabernan. "Animatu!", luzatu dute gonbita. Izen emateko epea maiatzaren 11ra arte, Kaffa kafetegian.

## Maiatzaren 11n, afari beganoa Gaztetxean

Bueltan da Usurbilgo Gaztetxeko afari beganoa. Hileroko bigarren ostegunean, 20:30etik aurrera borondatearen truke. Afalondoren, Pelax eta Bilau-ren kontzertua.

## Aisialdiko begirale ikastaroa

Herriko kirol taldeekin elkarlanean aisialdi begirale ikastaroa antolatu du Udalak. Izen emateko epea zabalik egongo da maiatzaren 19ra arte, Oiardo Kiroldegian.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) // [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

[erredakzio@noaua.eus](mailto:erredakzio@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

## Plazara berriz

**G**ozo askoa behar luke lerrook sortzen ari naizen astelehen hau. Atzo, maiatzak 7, erabakitze eskubidea praktikara eraman ahal izan genuen. Egun historikoa, parte hartze anitz eta itzela erakarri zuen herri kontsultak. Zorionak eta eskerrik asko, traba eta ezintasun guztien gaintetik hitza hartzea ahalbidetu diguten Herritzartuko kideei! Txalotzekoa da, hilabeteotan herri honek auzolanean jorratu duen bidea.

Hautetsontsietan borondate argia adierazi zuten herritarrek, normaltasun osoz, aldarrikapen eta jai giroan: zubietarrek Euskal Herri independente bateko herritarra izateko nahia; usurbildarrek Euskal Herria estatu independentea izatekoa. Erabakitze eskubidea praktikara eraman dugun bigarren aldia izan da honakoa; Erraustegia Erabakia herri plataformak urrian antolaturikoan, herriak argi adierazi zuen baita, ez zuela erraustegirik nahi ez Zubie-

tan, ez inon.

Aldari hura inoiz baino presenteago dugu lerrook idazten ari naizen une honetan. Erraustegia eraikitzen hastear dira Zubieta gainean eta protesta eguna deitua du gaurko Erraustetaren Aurkako Mugimenduak Gipuzkoako udalerrietan. Herri honetan hainbatetan gertatu ohi den moduan, ez digute atzokoaz gozatzeko astirik ere eman. 24 orduren buruan berriz ere plazara goaz, hitza hartzera, protestarako oraingoan. Behingoz entzun gaitzaten.

Lerrook aldizkari inprimatuan irakurtzerako, ziurrenik, hasiak izango dira, Zubieta gainean ikustera ohituak ginen zuloa "betetzen", etorkizun ez oso urrunean, guztion poltsiko, ingurumen eta batez ere osasuna kaltetu dezakeen erraustegia eraikitzen. Eta 2019ko udazkenerako ke toxikoa lau haizeetara zabaltzen ariko da.

Eraikitze lanak hasi bezperatan, Espainiako telebista kateko albistegian entzundakoak arreata piztu dit. Murtziako

5.000 bat biztanle dituen La Aljorra udalerria aipatzen ari ziren. Minbizi kasuen kopurua hirukoiztu omen da bertan. Lehen, urtean kasu bat edo bi izatetik lauzpabost izatera igaro direla zioen herriko medikuak. Kezka areagotzen doa herritarren artean. Etxe ondoan hondakin arriskutsuak erretzen dituen enpresari egozten diote, minbizi kasuen areagotzearen erantzukizuna. Alternatiba eske dabilta. Enpresak dio euren jardunak lege aldetik baldintza guztiak betetzen dituela. Herritarrek aldiz, legea betetzea ez dela haien osasunerako bermea.

Handik ehunka kilometrotara gara gu. Baina nork jakin, nazioarteko hainbat adituek ohartarazi izan diguten moduan, panorama beretsuan aurki gaitzke urte gutxi barru.

Erraustegia eraikitzen hastear diren honetan, berreskuratu beharrekoa dugun plazan hitzartu gaituzte berriz gaurko. Atzo herriak hitza hartu ahal izan zuen

gune berean, gaur protestan. Atzoko herri kontsulta honen bueltan eraikitzen hasi diren elkarlanerako zubiak, pentsaera ezberdinetako herritarren artean josten doan sarea, auzolanerako prestasuna... Zergatik ez halakorik, hondakinen kudeaketaren gaian? Ezin ukatu, eredugarria izango ez litzatekeenik.

Eta horregatik amorrugarria da, atzo hainbat herritarren artean galdeketa desberdinen arteko elkarlan eta adostasunera heltzeko gaitasuna defendatzen ikusi genituen batzuk, 24 orduren buruan, berriz ere azken 15 urteotan, hondakinen kudeaketaren gaian erakutsi duten herritarrekiko jarrera inposatzaile eta zapaltzaile horretara itzultzen direla ikustea. Guztia, herritarren artean kezka, haserre, eta protestak eragiten ari den proiektu kutsakor, herritarren osasunerako kaltegarri eta garestia dena defendatzearen.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Udal diru-laguntzen plan estrategikoa, hasieraz onartua

Azken hamarkada honetan diru-laguntzen gaia arautzen duen udal ordenantza izan arren, 38/2003 Lege Orokorrak gai hau kudeatzeko Plan Estrategiko bat izatera derrigortzen du Udala. 2017-2019 urtera arterako landu duten plan hau aurkeztu eta aho batez onartu zuen udalbatzak, apirilaren 25ean egin zuten osoko ohiko bilkuran. Bertan hartutako erabakia Gi-

puzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea zabalduko da. Plan berriak diru-laguntza lerro eta programa guztiak jasoko ditu, "bakoitzean ondorengo aspektuak zehaztuz: lortu nahi diren helburuak, diru-laguntzen modalitatea, nori dagoen zuzendua programa edo lerroa, zenbatekoa eta aurrekon-

tu aplikazioa".

### Diru kontu gehiago

Ekonomia gaiei loturiko beste bi kontu. Batetik, 2016an kontabilizatu ezin izan ziren hondakinen bilketa eta tratamenduaren zerbitzuei loturiko 4 kreditu 2017ko aurrekontuei egozteko erabakia hartu zuen Udalak gehiengo osoz, EHBildu eta PSEren udal ordezkarien

aldeko babesarekin, apirilaren 25eko osoko bilkuran. EAJ PNVko udal ordezkariak abstenitu ziren. Bestetik, Usurbilgo Udaleko kontu-hartzaileak egintxo txosten baten berri eman zen. Txosten honen arabera, 2017ko kreditu aldaketaren onarpen espedienteak finantza iraunkortasunaren helburua betetzen du, ez aldiz aurrekontuaren egonkortasuna.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAlk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: maiatzak 19. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 15.

# Oriarte BHI institutuan aurre-matrikulatzeko garaia

**D**BH amaitu eta gero zer? Ikasten jarraitu nahi duenak bide ezberdinak ditu. Horien artean, Batxilergoko ikasketek ekitea. Lasarte-Usurbil Institutuan zabalik dago, 2017-2018 ikasturterako lehen eta bigarren mailan aurrematrikulatzeko epea.

## Adi data hauei:

■ Eskaerak ikastetxean: maiatzak 2-12.

■ Eskaeran on-line: maiatzak 2-11.

## Izen-aldaketa

25 urte bete berri dituen Landaberri ikastolak eta Lasarte-Usurbil Institutuak bat egingo dute datorren uztailearen 1ean; IES Oriarte BHI izenpean.

## Informazio gehiago:

info@oriarte.eus / oriarte.eus  
943 372 852 / 943 372 277



Landaberri ikastolak eta Lasarte-Usurbil Institutuak bat egingo dute datorren uztailearen 1ean; IES Oriarte BHI izenpean.

## Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

Larunbat honetan, maiatzak 13, ikastetxeko instalakuntzak eta heziketa-proiektua eza-

gutzeko azken saioa goizeko 11:00etan.

## Argibide gehiagorako:

lhusurbil.eus  
943 364 600.

# “Erresidentzia orain” ekitaldian herritar ugari batu ziren

**E**rresidentzia orain lemapean, ekitaldi jendetsua egin zuten ostiral arratsaldean Sutegin. Julen Etxeberria eta Aritz Berastegi arkitektoek “Etxean edo etxean bezala zahartzen” hitzaldia eskaini zuten.

Solasaldia baino lehen, herriko jubilatuen elkarteak ordezkariak orrialde bat banatu zuten bertaratu zirenen artean. Idatzi horretan, eskaera hau egiten zioten Usurbilgo Udalarari: “beharrezko gestioak egin ditzala, bai Aldundiarekin eta baita Matia fundazioarekin beharrezko zerbitzuak garatzeko Txara-gaina deritzan zonal-



Udalari, Foru Aldundiari eta Matia fundazioari “Txara-gaina deritzan zonaldean beharrezko zerbitzuak” garatzeko eskaera egin diete jubilatutako elkarrekin.

dean, edukiera egokiduna eta beharretara egokitua”.

## Elkarlanean

Usurbilgo Gure Pakea jubila-

tuen elkarteak, Santueneko Zaharren Egoitzak eta Aginagako Arrate Zaharren Egoitzak antolatuta zuten ostiraleko ekitaldia.

## Aginagako udako txokoak

Maiatzaren 15era arte zabalik dago Aginagako Eskola Txiki-k Guraso Elkarteak udarako antolatuta dituen txokoetan izen emateko epea. Txokoak ekainaren 26tik uztailearen 28ra luzatuko dira. “Apuntatzeko bi aukera izango dira, iraupen osoa edota asteak solte”, ohartarazi dute antolatzaileek. Informazio gehiago eta izen ematea, aginaga@eskolatxikiak.org atarian.

## Izen ematea

### Zubietako txokoetan

Ostiral honetara arteko, maiatzaren 12rako epea dago, Zubietako Guraso Elkarteak uztaile eta abuzturako 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzenduta antolatuta dituzten udako txokoetan izen emateko. “Egitaraua eta egutegia oraindik zehaztu gabe badago ere, hasiera batean txokoak goizetan izango dira, haurrek lagun artean jolastu, tailerretan parte hartu, irteerak egin eta abar luze bat egiteko aukera izango dute Ttakun Elkar-tearen gidaritzapean”, berri eman dute antolatzaileek. Inskripzio orriak Zubietako Eskolan eskura daitezke. Izen emateko eta argibide gehiagorako: zubietatxoko@gmail.com edo 649 659 786.

## Usurbilgo jaiei begirako bi deialdi

Usurbilgo Udalaren eta Jai Batzordearen deialdiotan ekarpenak egiteko maiatzaren 22ra arteko epea dago:

■ Txupinazorako hautagaiak proposatzeko aukera.

■ Egitarau diseinu lehiaketa.

Argibide gehiago eta egitaraua diseinatze testua eskuratzeko bideak: 943 371 999  
kultura@usurbil.eus  
Potxoenean

# Goranzko joera eten egin da

**H**ala da. Euskara ez dago aurreko urteetan bezain presente kalean, ezta gure ahotan ere. Hala diote Soziolinguistika Klusterrak aurreko udazkenean Usurbilen egin eta plazaratu berri diren euskararen kale erabileraren azterketako emaitzek. %54koa da euskararen kaleko erabilera udalerrri honetan. 2011n egin zuten aurreko neurketan %61,9koa zen. 8 puntu egin du behera honenbestez, euskararen kaleko erabilerak.

Auzoka, beherakada nagusia, bereziki Zubietan eta Olarrondon erregistratu da. Baina bada pozteko moduko daturik ere. Balantzaren beste aldean, hor dugu Aginagako ehunekoak; euskararen kale erabilera %90ekoa da bertan. Eta Kaxkoan, mantendu egin da, %73an. Datu baikor gehiago; haur eta gazteenak dira euskara ahotan gehien darabiltenak. Gazteen artean gorantz egin du gainera. Poztekoa beraz.

Haurren presentziak helduen arteko elkarriketen hizkuntzan eragiten ote duen ere aztertu dute. Eta bai, baldintzatzen du. Haurrak dandenean euskara presentegoko dago helduen ahotan. Haurrik ez badago, %65,7tik %43,1era murrizten da euskararen kaleko erabilera.

## Datuak eskuragarri

Usurbildik kanpora begira jartzan bagara, udalerrri honetako kale erabileraren batz bestekoak, Gipuzkoako edota Euskal Herrikoaren gaineratik egoten segitzen du. Euskal Herria aipatu dugula, 100 bat udalerrietan egin dituzte antzeko neurketak. Euskal Herri mailan bildutako emaitzak ekaina aldera ezagutzera ematekoak dira. Soziolinguistika Klusterreko teknikari Olatz Altuna usurbildarrak, apirilaren 27an Potxo-



2011. urtetik hona, 8 puntu egin du behera euskararen kaleko erabilerak Usurbilen.

## KALE ERABILERA DATUAK

**“Aginagan euskararen kale erabilera %90ekoa da. Usurbilgo kaxkoan mantendu egin da, %73an. Auzoka, beherakada nagusia Zubietan eta Olarrondon erregistratu da”**

nean egin zuten Usurbilgo azterketen aurkezpenean iragarri zuenez, “seguru, emango dute zeresana”.

Udalerrri honi dagokion datu

bilduma jada, usurbil.eus atarian duzue eskuragarri. Emaillez jasotzea ere eska dezakezue Udalak Potxoenean duen Euskara Sailean (943 371 999 edo euskara@usurbil.eus).

## Hitanoari buruzko lehen neurketa

Proba moduan, oraingoan lehen aldiz hitanoaren kale erabilera ere neurtu du Soziolinguistika Klusterrak. Azpeitian eta Usurbilen egin dituzte neurketok, proba moduan. Ez da lan erraza izan. Batetik, aditzen bat zuten elkarriketak behatu behar izan dituzte, eta ohi baino

denbora gehiago eskaini behar izan diote lanketa honi.

Estreinakoz eginiko neurketa honetatik jakin ahal izan dutenez, hitanoaren erabilera orokorra %28,1ekoa da. Bizien gazteen artean dago (%67,3), baita adinekoen artean ere (%51,3). Euskararen kale erabileraren neurketan, sexuaren araberrako ehunekotan aipatzeko moduko alderik ez dagoen arren, kasu honetan bestelako emaitzak bildu dituzte. Hitanoaren aldaeretakoa bat, tokaren kaleko erabilera %63,9koa da, nokarena aldiz %11,1ekoa.

## Neurketak entzunez, galdetu gabe

Euskararen eta hitanoaren kale erabilerari loturiko azterketok bost guneetan egin zituzten lau lagunek, iazko udazkenean; erdigunean, Zubietan, Santuenean, Aginagan eta Olarriondon. Egun eta ordutegi zehatz batzuetan, aurrez diseinatua zuten ibilbide bat osatu zuten bost zonaldeotan barrena. Ibilbi-

deotan topatu zuten jendearen elkarriketen hizkuntza izan zen aztertu zutena. Baita hizlariak ere; ia gizonetakoak edo emakumezkoak ziren, ahotan zer hizkuntza zerabilten, haien adin tartea, edota inguruan haurrik ba ote zen ere aztertu zuten. Ez zen behatu hitz egiten ari ziren pertsona hauen jatorria; alegia

bertakoa, auzokoa, udalerrrikoa edo kanpokoa zen.

## Diskrezioan

Neurketok diskrezioz egin ohi dituzte, hitz egiten ari direnak jabetu gabe. Kaleko hizkuntzen erabilera entzunez egiten dute datu bilketa, behatua den pertsonari ez zaio inolako galdeketa egiten.

## Euskararen kale-erabileraren datuak

### Hiztun kopurua

(2011ko errolda): 5.849.

**Euskaldun kopurua (2011ko errolda):** 4.079 (%69,7).

**Neurtutako hiztun kopurua:** 4.166.

### Ezagutza eta kale erabilera

**Ezagutza:** %69,7.

#### Erabilera:

2.251 (%54) euskaraz.

1.894 gaztelaniaz.

21 beste hizkuntzetan.

### Ibilbide bakoitzean jasotako datuak

#### Aginaga:

Euskaraz: 359 (%90).

Gaztelera: 40.

Bestelakoetan: 0.

#### Erdigunea:

Euskaraz: 935 (%73).

Gaztelera: 345.

Bestelakoetan: 0.

#### Olarriondo:

Euskaraz: 420, (%48,4).

Gaztelera: 444.

Bestelakoetan: 2.

#### Santuenea:

Euskaraz: 173 (%25,5).

Gaztelera: 492.

Bestelakoetan: 14.

#### Zubieta:

Euskaraz: 364 (%38,6).

Gaztelera: 573.

Bestelakoetan: 5.

### Adin taldeen arabera erabilera datuak

#### Haurrak:

Euskaraz: 918 (%70,1).

Gaztelera: 386.

Bestelakoetan: 5.

#### Gazteak:

Euskaraz: 270 (%67,3).

Gaztelera: 129.

Bestelakoetan: 2.

#### Helduak:

Euskaraz: 813 (%46,4).

Gaztelera: 926.

Bestelakoetan: 14.

#### Adinekoak:

Euskaraz: 250 (%35,6).

Gaztelera: 453.

Bestelakoetan: 0.

### Sexuaren arabera erabilera datuak

#### Emakumezkoak:

Euskaraz: 1.073 (%53,2).

Gaztelera: 936.

Bestelakoetan: 9.

#### Gizonezkoak:

Euskaraz: 1.178 (%54,8).

Gaztelera: 958.

Bestelakoetan: 12.

### Haurren presentziaren arabera erabilera datuak

#### Haurraren presentzia dagoenean:

Euskaraz: 1.326 (%65,7).

Gaztelera: 682.

Bestelakoetan: 10.

#### Haurrak bakarrik

##### (nagusirik gabe):

480 euskaraz (%77,2).

140 gaztelera.

2 bestelakoetan.

#### Nagusiak bakarrik

##### (haurrik gabe):

925 euskaraz (%43,1)

1.212 gaztelera.

Bestelakoetan 11.

#### Haurrak eta nagusiak

##### nahasian:

846 euskaraz (%60,6).

542 gaztelera.

8 bestelakoetan.

#### Haurrak hizketan:

544 euskaraz (%57,2).

402 gaztelera.

5 bestelakoetan.

#### Nagusiak hizketan:

302 euskaraz (%67,9).

140 gaztelera.

3 bestelakoetan.

#### Usurbil, 2016.

**Iturria:** Soziolinguistika Klusterra.

## Hitanoaren kale-erabileraren azterketa

### Erabilera datu orokorrak

Hitanoa: 296 (%28,1).

Zuka: 757 (%71,9).

Guztira: 1.053.

### Hitanoaren aldaerak

Hika neutroa: 74, %25.

Toka: 189, %63,9.

Noka: 33, %11,1.

Guztira: 296.

### Sexuaren arabera erabilera emaitzak

#### Hitanoaren erabilera emakumeen artean:

Zuka: 392, %85,4.

Hitanoa: 67, %14,6.

Guztira: 459.

#### Hitanoaren erabilera

##### gizonezkoen artean:

Zuka: 365, %61,4.

Hitanoa: 229, %38,6.

Guztira: 594.

### Hitanoaren aldaerak, sexuaren arabera

Emakumezkoak: 28 (%41,8)

noka; 27 (%40,3) hika neutroa;

12 (%17,9) toka.

Guztira: 67.

Gizonezkoak: 5 (%2,2) noka;

47 (%20,5) hika neutroa eta

177 (%77,3) toka.

Guztira: 229.

### Adinaren arabera erabilera emaitzak

Haurrak: 54 (%12,2)

hitanoa. 388 (%87,8) zuka.

Guztira: 442.

Gazteak: 70 (%67,3) hitanoa.

34 (%32,3) zuka.

Guztira: 104.

Helduak: 91 (%26,1) hitanoa.

258 (%73,9) zuka.

Guztira: 349.

Adinekoak: 81 (%51,3) hitanoa.

77 (%48,7) zuka.

Guztira: 158.

### Aldaerak, adinaren arabera

Haurrak: 8 (%14,8) noka; 24

(%44,4) toka; 22 (%40,7) hika

neutroa.

Guztira: 54.

Gazteak: 2 (%2,9) noka;

58 (%82,0) toka; 10 (%14,3)

hika neutroa.

Guztira: 70.

Helduak: 6 (%6,6) noka;

59 (%64,8) toka; 26 (%28,6)

hika neutroa.

Guztira: 91.

Adinekoak: 17 (%21) noka;

48 (%59,3) toka; 16 (%19,8)

hika neutroa.

Guztira: 81.

### Sexua eta adinaren arabera

#### Haurrak

Emakumeak: 13 (%14,9)

hitanoa. 74 (%85,1) zuka.

Guztira: 87.

Gizonak: 41 (%28,7)

hitanoa. 102 (%71,3) zuka.

Guztira: 143.

#### Gazteak

Emakumeak: 9 (%37,5)

hitanoa. 15 (%62,5) zuka.

Guztira: 24.

Gizonak: 61 (%95,3)

hitanoa. 3 (%4,7) zuka.

Guztira: 64.

#### Helduak

Emakumeak: 21 (%32,3)

hitanoa, 44 (%67,7) zuka.

Guztira: 65.

Gizonak: 70 (%69,3)

hitanoa. 31 (%30,7) zuka.

Guztira: 101.

#### Adinekoak

Emakumeak: 24 (%55,8)

hitanoa. 19 (%44,2) zuka.

Guztira: 43.

Gizonak: 57 (%85,1)

hitanoa. 10 (%14,9) zuka.

Guztira: 67.

## “Usurbilen euskara balio erantsi bat da, zaindu beharrekoa”

“Arduraz hartzen ditugu datuok”, hala adierazi digute Usurbilgo Udaletik, Soziolinguistika Klusterrak ezagutzera eman dituen euskararen kale erabilera neurketako azken emaitzen harira. %61,9tik %54ra murriztu da euskara ahotan hartzeko dugun ohi-tura. “Udalak datu hau Euskal Herri mailan gertatzen den fenomeno batekin lotzen du”, adierazi dio NOAUA!ri Xuban Zubiria euskara zinegotziak. Bere esanetan, “UEMAren barruko arnaguneetan euskarak izan duen presentzia gelditzen edo pixka bat jaisten ari da. Usurbilen ere errealtate hori jada presente dugu”, gaineratu du.

### “Zergatik ez oraindik eta gehiago hobetu?”

Hizkuntzari loturiko jarrera eta ohi-turetan “erlaxatu” ote garen galdetu diogu. Udala arduratua dago euskararen erabileraren inguruko kontzientziak. “Usurbil herri euskalduna dela pentsatzen dugu, baina batzuetan inkontzienteki gaztelera oso



Xuban Zubiria, Usurbilgo Udaleko euskara zinegotzia.

#### XUBAN ZUBIRIA

**“Kaxkoan, herriaren bihotzean erabilera ez da jaitsi”. Oso datu ontzat du hau Udalak**

presente dugu”, adierazi du Zubiriak.

Bada ordea azpimarratzeko moduko datu baikorrik. Udallerri mailako erabileran eragin zuzena izan duen Zubietan erregistraturiko jaitsiera hor dagoen arren, “Kaxkoan, he-

rrriaren bihotzean erabilera ez da jaitsi”. Oso datu ontzat du hau Udalak. Are datu baikorra goa eman du ezagutzera Soziolinguistika Klusterrak; helduen artean “erlaxatze” bat eman bada ere, gazteen artean eman den gorakada. “Urte luzez, ikastolak, euskalgintzak edota Udalak eginiko lanak bere eragina izan duela nabari da. Atmosfera euskaldunera ohi-tu dira eta naturalki ateratzen zaie euskara”. Baita hitanoa ere. Oso ehuneko altuan izan ez arren, “pozgarria iruditzen

zaigu gazteen artean hitanoa presente dagoela ikustea. Hor badugu erronka, nokaren erabilera datu nahiko txikiak izan baitira”.

Haur eta gazteek euskara gehien erabiltzen dutela ikustek esperantza sortu eta norabide bat eta hainbat erronka markatzen dizkigula diote Udaletik; “Zergatik ez oraindik eta gehiago hobetu?”, proposatzen digute.

### Irailerako plana

Euskara ikasteko doakotasunean urratsak ematen segitzeaz gain, irailerako euskararen erabilera sustatzeko plan bat lantzen ari da Udala. Formakuntza saioak antolatuko dituzte UEMAekin elkarlanean. Bestetik, euskararen erabilerarekiko kontzientzia pizten ere eragin nahi du Udalak. “Usurbilen euskara balio erantsi bat da eta gure ondarea denez, zaindu eta gizarteratu beharrekoa”. Euskara erabiltzeko ekintzak eta euskal giroko atmosfera eskaintzen segitzea ezinbestekotzat jotzen du Udalak.

## “Pribilegiatuak garelako estimatu beharko genuke euskara”

Euskararen kale erabileran eman den beherakada “ez da datu ona” Idoia Torregarai NOAUA! KE-ko lehendakariarentzat. Ezta esaterako, Zubietan, Santuenean edota Olarriondo erregistratu diren ehuneko baxuak ere. Aztertu eta kontuan izateko modukoak iruditzen zaizkio datuok eta beherakada hau eragin ahal izan duten faktoreak ere; esaterako, biztanleriak urteotan izan duen bilakaera, gure artera etorritakoen hizkuntza ohi-turak zeintzuk diren, “lurraldea eta hizkuntza, euskara eta hirigintzaren arteko harreman hori”.

Datu oso on eta pozgarritzat nabarmentzen du, haur eta gazteen artean eman den gorakada. Baina adi egon beharko garelako dio, “horrek ez du esan nahi etorkizuna bermatua da-



Idoia Torregarai, NOAUA! Kultur Elkarteko lehendakaria.

#### IDOIA TORREGARAI

**“Gure aletxoak jartzen saiatzen gara NOAUA!n. Jendeak erabili gaitzala euskaraz bizi eta gozatzeko”**

goenik”. Bere garaian euskaraz hezi arren, helduagoen artean eman den beherakada aipatzen

du adibide moduan, “lasaitze bat eman da eta zer pentsatua ematen du. Halako bihotzmin bat ematen dit, adin tarte horretakoa bainaiz. Usurbil oso herri euskalduna dela iruditzen zaigu, baina egunerokoan lasaitu eta ingurukoekin erdararako joera ateratzen zaigu”.

Usurbilen pribilegiatuak garelako gogorarazten du Torregarai,

“euskaraz bizi gaitzkeelako. Pribilegiatuak garelako estimatu beharko genuke euskara eta kontzientziatu, gure gazteengandik adibide hartu”. Haur eta gazteen erreferentzia helduak direla gogorarazten du, eta alde horretatik, eguneroko bizimoduan, erdarara jo eta “konturatuz gero, ahalegintxo bat egin eta euskarara igaro”. Poztasunetik ahalegin hau erronka moduan hartzerako gonbidatzen gaitu.

### Euskaraz bizi eta gozatu

Iraultze horretan, NOAUA! KE-ko hedabideek nahiz kultur elkarteak berak duen funtzio giltzarria nabarmentzen du. “Bada erreferentzia garrantzitsu bat euskalduntasunaz gozatu, aritu eta partekatze. Jendeak erabili gaitzala euskaraz bizi eta gozatzeko”.



## “Euskararen erabileran eragiten segi behar dugu”

Soziolinguistika Klusterrak ezagutzera eman dituen azken datuek berretsi baino ez dute egiten Udarregi Ikastolako zuzendari Mariaje Imazen esanetan, ikastolan bertan azken hamarkada honetan sumatu izan duten joera. “Garai batean euskaraz ez zekienak hitz batzuk hizkuntza honetan egitera ausartzen zen. Gerora ordea, gaztelaniaren presentzia areagotzen joan da. Hasieran ikastolako eremutik kanpo, bidean, sartu irteera uneetan, gero pixkanaka ikastola barruan ere gehiago entzun dugu”.

Hasieran ikasle helduenen artean, baina gerora txikiagoen artean baita. Gai honi buruzko hainbat neurketa egin izan dituzte ikastolan eta “kezka hau familiarekin partekatu izan dugu. Hizkuntza jarre-  
rak zaintzeak duen garrantzia helarazi diegu”, adierazi dio NOAUA!ri Imazek. Diotenez, nabaria baita “gurasoak euskaldunak diren kasuetan ere, gaztelaniarako duten joera”.

Ikastola barruan ere aspal-



Mariaje Imaz, Udarregi Ikastolako zuzendaria.

### MARIAJE IMAZ

**“Kezka hau familiarekin partekatu izan dugu. Hizkuntza jarre-  
rak zaintzeak duen garrantzia helarazi diegu”**

ditik eragiten ari dira gai honetan. DBH 3 eta 4 mailetako ikasleekin UEMAK hizkuntzen erabileraz eta eragiteaz argitaraturiko unitate didaktikoak landu dituzte. TELP ikastaroetan parte hartzen dute aldiro.

Gurasoei begirako euskalduntze ikastaroa antolatu dute estreinakoz, Udalarekin eta AEK-rekin elkarlanean.

Bere bidea jorratzen ari da baita HIZPRO, 2008an, euskararen erabileran atzerakada ematen ari zela sumatu eta urte gutxira osatu zuten ikastola barruko lan taldea. Urteok erakutsi diete, halako talde baten beharra badela.

### Erabilerarako, trebatu behar

Garai batean idatzitako hiz-

kuntza proiektuaren jarraipen eta eguneraketa lana bideratzen dute bertan, euskararen erabileran eragitearekin batera. Urteotan, euskara dakitenak eta ez dakitenak bilduko dituen tailerra, ligatu nahiz hase-  
rretzeko esamoldeen lanketa, Euskararen Egunari loturiko ekimenak... antolatu izan dituzte. “Euskararen erabileran eragiten segi behar dugu. Gure esku ditugun tresnak erabiltzen segiko dugu”, dio Imazek.

Idazmen nahiz ahozkoatunean ahalik eta ondoen trebatu nahi dituzte ikasleak. “Garrantzitsuena da komunikatzen eta argudiatzen jakitea, bai ahoz eta bai idatziz. Ez baduzu erabiltzen, galtzen doa. Hizkuntzak erabili behar dira eta erabiliz ikasi egiten dira”, dio Udarregi Ikastolako zuzendariak. Hizkuntza portaeretan ere eragin beharra ikusten du, euskara dakienak tinkotasuna erakustea bere ama hizkuntza ahotan hartzen duenean, eta ezinbestekoa iruditzen zaio haur eta gazteen erabilera datu baikorrok zaintzea.

## “Familiako harremanak pisu handia du haurrengan”

Euskararen erabileran eman den beherakada ez da kontu berria euskaltegiokontzat. Bada denbora kezkatuak direla gai honekin, erdararako joera areagotu dela sumatu baitute azken urteotan. Errealitate honek argi erakusten du Olatz Urdanpilletaren esanetan, “euskara jakiteak erabilera ez duela bermatzen”.

Soziolinguistika Klusterrak ezagutzera eman dituen datuak arreta handiz aztertze-  
ko modukoak iruditzen zaizkio. “Oso sinplea litzateke irakurketa bakarra egitea”, dio. Erabileran eman den beherakada horren atzean faktore ezberdinek eragin-  
go zutela nabarmentzen du. Aztertze-  
koa iruditzen zaio urteotan Usurbilgo biztanleriak izan duen bilakaera. Usurbilgo errealitatea Euskal Herriko testuinguruare-

kin lotzen du baita; “Euskal Herri-  
an erdarak eta frantsesak leku handia dute eta euskaldunontzat arazoa da”.

### Erabileran eta ezagutzan eragin behar

Beharrezko joera frenatu eta erabileran eragin beharra dagoe-  
la azpimarratzen du bai, baina era berean baita ezagutzan ere. “Ez dakienak ezin du erabili eta erabiltzeko ikasi egin behar du. Gurpil zoroa da, erabiltzen ez badu zertarako ikasiko du? Ez du baliorik. Biak lotuta daude”, dio Olatzek.

Euskaldunok euskara ikasten ari direnak lagundu behar ditugula aipatzen du: “Badira euskara dakitenak, baina gaztelerez erraztasun handiagoa dutenez, erdarara jo eta azkenerako euskaraz aritzeko trebetasuna gal-

tzen dutenak”, gogorarazten du.

### Familia barruko transmisioa, giltzarria

Dugun errealitatea iraultzen laguntzeko, “euskaltegia hor dago. Euskaldun oso egiten laguntzen gaitu. Eredu guztietan, lagun artean, lantokian. Edonoren aurrean euskaraz idatziz nahiz ahoz aritu behar dugunean, euskaldunak batzuetan ez gara moldatzen. Horretan ere jantzi behar gara, eta horretan ere laguntzen du euskaltegiak”.

Euskaldunon jokabidea garrantzizkotzat jotzen du, gainerako euskalduntze prozesuan. Hainbat baliabide eskaintzen ditu euskaltegiak; esaterako, Mintzalagun egitasmoa. Aurten, Udarregi Ikastolako gurasoei begirako euskara klaseak ere antolatu dituzte.



Olatz Urdanpilleta, Etumeta-AEK euskaltegiokidea.

Giltzarria iruditzen zaio, familia barruko transmisioa. Helduek duten erreferentzialtasuna nabarmentzen du. “Famili-  
an hitz egiten denak, familiako harremanak pisu handia du haurrengan. Euskarak iraun bazuen familian iraun zuen eta orain galtzen ari bada, familian ari da galtzen”. Belaunaldi berriaren artean erabileran eman den gorakadari eutsi eta gazteak motibatatu behar direla dio, “etorkizuna hortik dator”.

# Aginaga, Euskal Herriko Atlas Geopoetikoaren lehen tomoan

**H**erri bakoitzak du bere izena eta bere izana. “Toki bakoitzari zerk emaiten dio nortasun berezia? Errekako urak, dudarik gabe, baina gehiago biztanleek, eta jende hauen eleek, mintzaerak, euskalkiak...”. Musika tresnak, argazki kamerak eta mikrofonoak soinean hartu eta herriz herri hasi dira bilketa lanetan. Hitzekin, doinuekin eta irudiekin osatu da Euskal Herriko Atlas Geopoetikoaren lehen tomoa. Eta lehen liburuki horretan, Aginaga ageri da.

Atlas geografikoak, atlas politikoak ezagunak ditugu. Atlas geopoetikoaren berri ez genuen, ordea. Mixel Etxekopar musikari zuberotarra da ekimen honen sustatzaileetako bat. 2012an hasi ziren egitasmo honekin eta, oraintsu, lehen tomoa plazaratu berri dute. Pagola, Arnegi, Aginaga, Hendaia, Barkoxe, Iruñea eta Berako esperientziak jaso dituzte liburu-CD euskarrian.

2013an, Aginagako San Praixku jaietan izan ziren hiru egunez. Bizitakoak, ikusitakoak



Hitzak, soinuak eta argazkiak dira atlas honen osagai nagusiak.

eta sentitutakoak islatu dituzte atlas honetan.

## Mixel Etxekopar: “Aginaga bihotzetik ezagutu ahal izan dugu”

**NOAUA! Aginaga ageri da Euskal Herriko Atlas Geopoetikoaren lehen tomoan. Aginagan egin zenuten egonaldiaz zer nolako oroitzapena duzu? Nolakoak izan ziren egun haiek?**

**Mixel Etxekopar.** Aginagan egin egonalditik oroitzapen ezinago gozoak atxiki ditugu, zeren auzo-herri hortan egun bereziak ziren, San Praixkuak alegia; eta festa hortan gu ere gonbidatuak ginen, bai ikusle gisa, baita ere aktore gisa. Gisa horrez herria bihotzetik ezagutu ahal izan dugu, oilasko biltzaileekin musika eginenez, argia gabe hasiak eta baserri guzietan itzulita eginik. Festako egitarauan ere sartzen zen gure emanaldia, eta auzotarrak hor ziren, haien, zuen herria ikusteko gure begien irazkitik. Bestalde sumatzen ez genuen mundu bat ere dabil Aginagan, hau da Oria, urezko zubia, urezko bidea, eta ala batean horren deskubritzeko ohorea izan genuen, ez baita guti!

**Tokian tokiko argazkiak, soinuak eta hitzak batu ditu-**



Mixel Etxekopar (irudian, erdian), Jean Christian Galtzetaburu, Pierre Vissler eta Joanes Etxebarria hiru egunez izan ziren Aginagan. Egonaldian batutakoa islatu dute atlas geopoetikoan.

### MIXEL ETXEKOPAR

**“Aginagarrek duten bereizgarri nagusia iduri zait, hein batean, ez direla usurbildarrak!”**

**zue atlas honetan. Zure ikuspuntutik, zein litzateke Aginagak duen bereizgarri nagusia?** Aginagarrek duten bereizgarri nagusia iduri zait, hein batean, ez direla usurbildarrak! Nortasuna sendi dugu auzoan, aginagarra ez dela txit usurbildarra. Orenen buru nabaritu dugu

badela bizia han bertan, eta herritarrek, auzotarrek emaiten diotela. Izan dela bizi bat ere, aldatu dena oso, Oria ondoko aktibitateak, ontziola, laborantza, arrantza; baina jendea jende, gaur ere aginarra aginar alafede. Guretzat ere gozotasun berezi bat, euskara kasik denen ahotan dabilela, eta ez dakienak ere jendarte horren barne dela, ez kanpotar senditzen.

Gurea da une bateko “argazkia”, eta ura Oriora doan bezala jadanik historia dela, guk gatibatu une eta gune horiek iheskor direla, Alejandro Tapia margolaria lekuko.



### Euskal Herriko Atlas Geopoetiko 1 Partaideak

Zuberoako Hebertik elkar-teak bideratzen du ekimen hau. Eta hitzak, irudiak eta soinuak batzen aritzen diren kideak hauek dira:

- Mixel Etxekopar musikari-kantaria (Gotaine-Xiberoa).
- Jean Christian Galtzetaburu musikaria (Gamarte-Behe Nafarroa).
- Pierre Vissler soinu grabatzaile eta moldatzailea (Montori-Xiberoa).
- Joanes Etxebarria (Barkoxe-Xiberoa) eta Patxi Laskarai (Ortaize-Behe Nafarroa) argazkilariak.

### Metodologia

Hiru eguneko egonaldiak egin dituzte herri bakoitzean:

- Egun bat edo bi herrian iragan, soinuak eta argazkiak biltzen, leku eta jende desberdinarekin mintzatuz.
- Muntaketa bat egin (audio eta argazki bidezkoa).
- Emanaldi bat herrian eskaini, emaitza erakutsiz, “eta gure kantu-hitz eta soinuekin nahasiz”.

### Ekoiak

Hebertik Alkartea, Euskal Kultura Erakundea. Argitaletxea: ZTK argitaletxea.

### Lizardi eta Arrate egoitzan salgai

Atlas hau Lizardi dendan eta Aginagako Arrate egoitzan aurkituko duzue, 20 eurotan.



## Usurbilgo "Herriko Etxea" Sari Nagusia

### Egurrezko ontzietan egindako sagardoaren Euskal Herriko 1. Lehiaketaren oinarriak:

- 1.- Euskal Herriko edozein sagardogilek parte har dezake, lanbide duenak edo ez, sagardotegietakoak bezala etxerako egiten duenak ere.
- 2.- Sagardogile bakoitzak 6 sagardo botila ekarriko ditu, denak kalitate berekoak.
- 3.- Botilak garbiak izango dira, ez dute inolako arrastorik edo etiketarik izan behar.
- 4.- Botilak maiatzak 19ko 14:00ak baino lehenago Usurbilgo ALKARTASUNA Baserritarren Kooperatibaren egoitzan entregatuko dira (ordutegia: astegunetan 09:00-13:00 eta 16:00-19:30. Larunbatetan goizean soilik • Atallu Industrialdea 26, 20170 USURBIL, Gipuzkoa • +34.943 361 114 • [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) )
- 5.- Epaimahaiak lehen daskateta batean, azken dastaketara igaroko diren sagardoak aukeratuko ditu, gainontzekoak lehiaketatik baztertuz. Azken dastaketa horretan erabakiko da zeintzuk diren lehen sari nagusia, bigarrena eta hirugarrena eskuratuko duten sagardoak. Era berean dastaketa horretara iritsi diren sagardo guztien sailkapena egingo da.
- 6.- Sari banaketa azken dastaketa burutu eta jarraian egingo da. Saria eskuratzen duen sagardogilea bertan izango da, bestela hurrengoari emango zaio.
- 7.- Lehiaketan parte hartzen duten sagardogileek oinarri hauek onartzen dituzte.
- 8.- Lehiaketan bertan inolako zalantzarik sortuko balitz epaimahaiak berak erabakiko du egoki deritzona.
- 9.- Dastaketan erabili ez diren sagardo botilak antolatzaileen esku geratuko dira.
- 10.- Sariak honoko hauek izango dira:

- **LEHENENGO SARIA:** Usurbilgo Herriko Etxea Saria diren 1.000€ eta Sariaren Ziurtagiria
- **BIGARREN SARIA:** Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 350€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Zirurtagiria
- **HIRUGARREN SARIA:** Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 150€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Zirurtagiria

11.- Lehiaketaren azken dastaketa eta sari banaketa Usurbilen burutuko da, 2017ko Maiatzak 21ean 12:30etan izango den 36. Sagardo Egunean, Goiko Plazako oholtzan.

#### ANTOLATZAILEA:

Sagardoaren Unibertsitatea

#### LAGUNTZAILEAK:

Usurbilgo Udala, Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba, Usurbilgo Sagardo Egunean Lagunak, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Bizi Sagardoa.

# Jose Luis Zumetaren oleo berriak, Txikiardiko bere estudioan ikusgai

Jose Luis Zumeta eta Usoa Zumeta duela bost bat urte hasi ziren Usurbilgo Txikiardiko estudioan lanean. Erakusketa gela bat zabaldu berri dute orain. Hilabete amaiera bitarte, Jose Luis Zumetaren koadro berri batzuk ikusteko aukera izango da.

Maiatzaren 2an, Txikiardiko sormen-gunearen zein erakusketaren aurkezpen ekitaldia egin zuten. Xabier Arregi alkateak eta Zumeta aita-alabek hartu zuten parte. Jose Luisek azken bi urteotan ondu dituen hamabi oleo batu dituzte lehen erakusketan.

## Ekainaren 6an, Euskal

**Sagardoa-ren inguruko ekitaldia** Sagastiak Loretan ospakizunen baitan, "Euskal Sagar-



Zumeta Estudioa Txikiardi auzoan dago.. Erakusketaren inaugurazioa maiatzaren 2an egin zen.

doa" jatorrizko izendapen berriko sagardoaren aurkezpena egingo da Zumeta Estudioan. Ekainaren 6an asteartea, arratsaldeko 19:00etan. Aurkezpenaren aitzakian,

sagardoa eta mokadutxo bat dastatuz batera, Zumetaren koadroak ikusteko aukera izango da. Kotxez ezingo da bertaratu. Autobus zerbitzua ipiniko dute Kaxkoan.

## Bisita-egunak

Jose Luis Zumetaren 12 oleo berri eskegi dituzte lehen erakusketa publikoan. Hilaren bukaerara arte egongo dira ikusgai. Hauek dira erakusketa bisitatzeko egunak eta orduak:

■ Asteartetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

■ Larunbatetan eta igandetan, 11:00etatik 14:00etara.

Joan aurretik, telefonoz deitzea komeni.

## Aurkezpen-ekitaldia

Maiatzaren 2an egin zen aurkezpen-ekitaldian esandakoak bideo iruditzen jaso genituen.



# Noaia! App

## Herriko berriak beti soinean

Albisteak, agenda eta askoz gehiago Noaia! app berrian. Deskargatu doan eta jaso herriko azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:

[www.noaia.eus](http://www.noaia.eus)

# ERLEZAINNTZA IKASTAROA



## Erlezaintza ikastaroa: BARROA: SORTZEN DITUEN GAIXOTASUNAK ETA NOLA BORROKATU

(ikastaro teoriko-praktikoa)  
TOKIA: Alkartasuna Kooperatiba

Julian Urkiola izango da irakaslea, hainbat urtez Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko lehendakaria izandakoa, erlezaintzan aditua.

2 saio izango dira:

- MAIATZAK 20, LARUNBATA

- 2. Saioko eguna, maiatzaren 20an zehaztuko da

Ordua: 11:00-13:30



Ikastaroaren prezioa 6€-takoa izango da  
(Alkartasuna Kooperatibaren bazkideak DOAN).

IZEN-EMATEA: Alkartasuna kooperatiba • Atallu industrialdea 26, USURBIL. Tel: 943 361 114 • e-maila: [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)


# BAZKIDEEN TXOKOA



## noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu!

bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera izango duzu. 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)



**Klik! batean**

## Jexux Artzeren omenez

“ttun ttakun joan zen,  
ttun ttakun bizi da”.

Txalamandra txalaparta bikotea,  
maiatzaren 6an Mikel Laboa plazan.

Argazkia: Ion Markel



# Milaka boto, erabakiaren bidean

Herri galdeketako bozkek zenbatu ondoren, balorazio moduko egin zuten Usurbilen eta Zubietan. Herritzartu eta Zubiaratean elkarrekin kideen esanetan, “erabakiaren bidean atzera bueltarik gabeko urrats historikoa egin dugu”. Ekainaren 10ean Herritarren Ituna aurkeztuko da Bilbon eta bertara joateko gonbitea luzatu du Gure Esku Dago mugimenduak.

Bozka zenbaketak amaitu ondoren, Zubietan, Usurbilen eta gainontzeko herrietan antzeko balorazio komuna irakurri zen: “Gaur, 63.201 herritarrek, erabakiaren bidean atzera bueltarik gabeko urrats historikoa egin dugu. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 52 herritan, 63.201 herritarrek lagunek demokraziaren eta herritarron burujabetzaren aldeko jarrera erakutsi dute.

Iaz pentsatu ere ez genuen egiten gaur galdeketak egin dituzten herrietan halako prozesu bat martxan jartzea posible izango zenik, ez zegoen baldintzarik; baldintzak sortu egin ditugu, eta eremu oso anitzetara iritsi gara; Urkabus-taiztik hasi eta Eibarreraino, edo Durangotik Zubietaraino.



Une jakin batzuetan, ilara luzeak osatu ziren Kaxkoko hauteslekuan. Parte hartzea %38,36koa izan zen Usurbilen.

## GURE ESKU DAGO

**“Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 52 herritan, 63.201 lagunek demokraziaren eta herritarron burujabetzaren aldeko jarrera erakutsi dute”**

Aldarri batekin jaio ginen; herri honek bere etorkizun politikoa libreki erabakitzea. Eta praktikara eramaten ari gara herriz herri, modu sinbolikoan

bezain zilegian. 2017a amaitzerako, galdeketak eta erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida milioi bat herritar bizi diren eremuetara iritsiko dira. Lorpen itzela da hori.


Datozen hilabeteetan ere lanean jarraituko dugu, borondateak ehunduz, adostasunetan sakonduz eta herritarrak ahaldunduz, Euskal Herrian erabakia gauza dadin. Gure esku dagoen guztia egingo dugu. Herritarron esku dagoen guztia egingo dugu erabakia gauzatu dadin. Ezinezkoa ezinezko baita errealitate bihurtzen den

arte. Horretan sinesten dugu eta hori erakutsi dugu gaur beste 52 herritan”.

## Ekainaren 10ean, Herritarron Itunaren aurkezpena Bilbon

Ekainaren 10erako ekitaldi berri bat iragarri du Gure Esku Dago mugimenduk: “Bilbon deitu dugun mobilizazio nazionalan, Herritarron Ituna aurkeztuko dugu; euskal komunitate osoari zuzendutako itun demokratikoa. Erabakiaren bidean ate berriak zabaltzen ari gara, eta Herritarron Ituna mugarri izango da”.

## Usurbil eta Zubietako herri galdeketetako emaitzak





# Herritzartu: “Zorionak guztioi”

**H**erritzartu Elkartekoak pozik zeuden galdeketa zenbaketaren amaieran. Ezer baino lehen, igandeko galdeketa parte hartu zutenak zoriondu nahi izan zituzten. “Zorionak guztioi. Zorionak baiezko botoa eman duzuenoi, zorionak ezezko botoa eman duzuenoi eta zorionak ere zurian bozkatu duzuenoi. Erabakitzen ari gara!”, adierazi zuten Herritzartu Elkarteko ordezkariak, bertaraturikoen txalo artean.

Ariketa demokratiko eta atzera bueltarik ez duen urrats historiko gisa definitu zuten herri kontsulta, eta herri mailan sustatu den elkarlana goraiatu zuten. “Herritar orok modu libre eta lasaian bere iritzia ematea ahalbidetu duen ariketa izan da. Neutraltasun, objektibotasun eta gardentasun printzipioen gainean antolatua eta gauzatua. Herri galdeketa hau ere herritarren arteko elkarlana izan da, elkarte, talde, norbanako ezberdinen babesarekin, eta herritar askoren lanarekin antolatu eta gauzatu da gaurko eguna”, azpimarratu zuten.

“Abenduko aurkezpenean, gaztainak prestatu zituzten



Jende asko aritu zen lanean. Zenbaketaren amaieran, “familia” erretratu hau atera zuten.

## HERRITZARTU

**“Galdeketa hau herritarren arteko elkarlana izan da. Elkarte, talde, norbanako ezberdinen babesarekin, eta herritar askoren lanarekin antolatu eta gauzatu da gaurko eguna”**

herritarrekin hasi, eta gaurko egunera arte hamarnaka herritarrek egin duten lana azpimarratu eta eskertu nahi dugu: galdera osatzeko taldeak, kanta osatu duten herritarrek, herri bazkaria antolatu zutenak, kartelak egin eta jartzen lagundu dutenak, lokala eta guneak prestatu dituztenak, buzoneoak, inprenta, Hurbigalago Elkartea, NOAUA!... Guz-

tiak beti gertu, beti prest. Herritarren arteko elkarlana, gure lurrarentzako ongarri indartsu bat da, indarrak eta proiektuak ereiteko. Eta harian harian, etorkizun berri oparora eraikitzen joateko”, gogorarazi zuten Herritzartutik.

Egunak eman zuenari buruzko bideoak eta argazkiak, noaia.eus web orrian dituzue ikusgai.

## Aginagako hauteslekura ere boto-emale ugari hurbildu ziren



# Parte hartze handiena, Zubietan

Zubiartean elkartekoak halaxe mintzo ziren aurreko asteko NOAUA!n: “denok zubietartzat dugu geure burua. Zubietan galdeketa propioa egiteko arrazoia ere hori izan da, guretik egingo dugula eta Zubietan subjektu erabakitzailerik bezala aitortzeko”. Emaitzari erreparatzen badiogu behintzat, zubietar gehiengoaren aitortza jaso zutela esan daiteke.

## Zubietako datuak

**Galdera: Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi al duzu?**

- Bai 239.
- Ez 2.
- Zuriak: 1.
- Baliogabeak 2.
- Errolda: 453.
- Partehartzea: % 54,22.



Zubietan, %54,22ak hartu zuen parte bozketan. Goiz eta eguerdi partean batu zituzten boto gehien.



Herri bazkariaren ondoren, Ttipika taldekoek giro polita jarri zuten.



Batzuk dantzan zebiltzan bitartean, besteak musean jokatzen aritu ziren.

## Zubietako herri bazkarian, amak omendu zituzten



Argazkian ikus daitekeen bezala, opari bana jaso zuten. Argazkia: Zubiartean.

## Santuenean, mugimendu handiena goiz partean



Santueneko hauteslekuan ere izan zen mugimendurik, goiz partean bereziki.

# Mobilizatzeko deia, erraustegia eraikitzen hastear diren honetan



Astelehen arratsaldean elkarretaratze zaratsuak egin ziren herri askotan. Argazkitan, Mikel Laboa plazan eta Zubietan eginiko bilkurak.

**A**ldizkari hau inprentara bidean zihoala hastear zituzen Zubietako erraustegiko eraikitze lanak. Maiatzaren 10ean lehen harria jartzekoa zuten. Panorama honetan, mobilizatzeko deialdiak ugaritzen doaz. Adi Errausketaren Aurkako Usurbilgo Taldeak deitu dituen datozen hitzordu hauei:

## Datozen deialdiak Maiatzak 12 eta 19

■ 19:00 Elkarretaratze zaratsuak Mikel Laboa plazan. “Ekarri zarata sortuko duten

**ELKARRETARATZEAK**  
**“Datozen bi ostiraletan ere elkarretaratze zaratsua errepikatuko dute Mikel Laboa plazan, 19:00etan”**

gailuak; danborrak, txistuak, kazolak... “.

## Maiatzak 27, larunbata

■ Egun osoz, mobilizazio eguna Zubietan. Hitzaldiak, hau-

rentzako tailer eta jolasak, musika... Tartean herri bazkaria. Txartelak aurrez jarriko dituzte salgai. Arratsaldean, Gipuzkoa Zutik mugimenduak antolaturiko ekimenak.

■ Deitzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.

## “Errausketarik ez gure izenean”

Gipuzkoako beste hainbat udalerrietan bezala, Usurbilen eta Zubietan ere plazara atera ziren herritarrak aste hasieran, inoiz baino ozena-

go, erraustegirik ez dutela nahi adieraztera. Zaratsuak izan ziren elkarretaratzeak. Txilibitu, kazola eta soinua eragiten duten gainerako gailuekin gerturatu ziren usurbildarrak Mikel Laboa plazara eta zubietarrak frontoi ondoko plazara. Ozen asko adierazi nahi izan zieten erraustegia eraikitze proiektua defendatu eta eraiki asmo dutenei, haien izenean ezetz, guztion osasun, ingurumen eta ekonomia kaltetuko duen erraustegirik ez dutela nahi. Ez Zubietan, ez inon.

## GuraSOS, hondakinen politika partekatu bat eraikitzearen alde

Erraustegiko kontratuaren sinadura eta eraikitze lanen hasiera baloratu eta datozen hilabeteotarako lan ildoak aurkeztu zituen GuraSOSek astearte goiz honetan. Bi helburu bete nahi dituzte; proiektua bera geratzea eta hondakinen politika partekatu bat eraikitzea.

Horretarako lau ekimen proposatzen dituzte: defen-

tsa juridikoa; egitasmoaren finantziarioa kolokan jartzea; denon artean hondakinen kudeaketa politika komuna eraikitzea eta horretatik 2017-30 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Planari forma ematea; eta azkenik, gizar-tearen babesa izango duen iniziatiba ekintzaile bat bul-tzatzea.



Datorren asteko NOAUAIn emango ditugu xehetasun gehiago.

# Ikusgarritasun handiko ekitaldiak



Argazkia: Iñaki Agirresarobe

Argazkia: Luis Jambriña

Dantzak, musikak, bertsoak eta txalapartak bat egin zuten "Esku harriak, Oteizaren (h)aria" ikuskizunean. MugMus Laborategiak, Uxue Alberdi bertsolariak, Txalamandra txalapartari taldeak eta Alazne Begiristain-Eli Eizagirre txalapartari bikoteak saio ederra eskaini zuten.

## Hunkigarria, Antton Olariagari eginiko omenaldia

'Itzal zaunka' kontzertuaren aitzakian, Antton Olariaga marrazkilaria omendu zuten. Aurreko larunbatean izan zen, Sutegin. Jexux Artze Kultur Elkarteak lore-sorta bat oparitu zion eta Udalak Jose Luis Zumetaren serigrafia bat. "Giro polita sortu zen eta Antton asko emozionatu zen", antolatzaileek aditzera eman digutenez.



"Itzal zaunka" ikuskizunean, Antton Olariagak Jexux Artze Kultur Elkartearen eta Udalaren oroigarri bana jaso zuen.

### Datorren astean, antzerki saioa Sutegin



Txalo taldearen *Jainko basatia* antzezlanarekin amaituko da Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatu duen kultur zikloa. Sarrerak Lizardi dendan dauzkate salgai.

#### Maiatzak 20 larunbata, 22:00

■ 8 euro aldeztatik Lizardin. Egun berean, Sutegin, 10 euro.

■ Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta, Tessa Andonegi.

# Jende ugari Bizi Kalea azokan

Ingandeko Bizi Kalea festan, Hurbilago Elkarteko dendariak izan ziren protagonistak. Dendariak, eta erosleak. Salgai ipini zituzten produktu guztiak %10eko beherapenarekin zeuden-eta. Horretaz gain, "Usurbilgo txokoak" argazki erakusketa kolektiboa ikusi edota mokadu bat hartzeko aukera izan zuten Dema plaza bertaratu ziren guztiak.

## Ken Zazpirako sarrerak salgai

Larunbat honetan, Ken Zazpi taldeak joko du Dema plazan. Ekitaldi hau ere Hurbilago antolatu du. Aurrez erosita, sarre-  
rak merkeago dira: 12 eurotan daude Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiribogan.

## Zenbaki sarituak

Lehen saria, Hurbilagok jarritako 150 euroko erosketa balea, dendarien postuetako erosleen artean egindako zozketako zenbaki saritua: 2203.

Bigarren saria, Hurbilagok jarritako 150 euroko erosketa balea, tabernariak eskainitako pintxoren bat dastatu zuten artean egindako zozketako zenbaki saritua: 1722.

Beste hamahiru sari, tabernariak ipinitako beste 13 loterenak; zenbaki sarituak, hauexek: 1. lotea 1675; 2. lotea 2305; 3. lotea 2347; 4. lotea 1615; 5. lotea 1713; 6. lotea 1776; 7. lotea 2363; 8. lotea 1714; 9. lotea 1784; 10. lotea 3105; 11. lotea 1610; 12. lotea 1797; 13. lotea 1722.



"Usurbilgo txokoak" erakusketak herritar askoren arreta bereganatu zuen.

# Txalapartarientzako kabi berria Txokoalden



Txokoaldeko Txalaparta Txokoaren aurkezpen ekitaldian herritar ugari batu ziren. Oreak TX taldearen entsegu baten lekuko izan ziren ondoren.



Aurrerantzean, txalaparta doinuek biziberrituko dute Txokoaldeko garai bateko tren geltokiko erakina eta baita auzoa bera ere. Oreak Tx taldeak kudeatuko duen gunearen irekiera ekital-

dia maiatzaren 5ean egin zen. Eta jende ugari bertaratu zen.

## Lehiaketa bidez hautatua

Oreak TX taldearena izan zen, hain zuzen, Usurbilgo Udalak Txokoaldeko zonalde honetan

kultur proiektu berritzaileak garatzeko lehiaketan gailendu zena. Aurkezpen ekitaldian Xabier Arregi alkateak hartu zuen parte eta txalapartarien txoko berri honek lankidetzarako aukerak sortuko dituela adiera-

zi zuen.

Oreak TX taldeak 20 urte beteko ditu aurten. Txokoaldeko Txalaparta Txokoan garatu asmo duten proiektuaren ardatz nagusiak aurkeztu zituzten bertaratu ziren lagunengandik aurrera.

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44



**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**ESKAIOLA eta  
PLADUR**

Joxean Elorza  
**699426042**  
USURBIL

# Gurasoek ere badute zeresanik

Gurasoen parte hartzea indartzeko xedez, Biziberritu ekimena jarri zen martxan Udarregi ikastolan. Maiatzaren 25ean egingo den Batzar Nagusiari begira, sinadurak biltzen ari dira egunotan.

Biziberritu ekimenaren helburuak hauek dira: "ikastolaren funtzionamendua hobetzea, erabakietan parte hartzeko egun dauden bideak osatuz eta hobetuz", idatzi bidez ohartarazi digutenez. Aurten abiatu da eta bi dira landu dituzten gaiak: gurasoek ordaintzen duten hileroko kuotaren kopurua erabaki eta urteroko soberakinekin zer egin erabaki.

## Sinadura bilketa

Maiatzaren 4an, guraso bilera bat egin zen. Kuotarako, zenbait jaitziera proposatu ziren.



Hileroko kuotaren kopurua erabaki eta urteroko soberakinekin zer egin erabaki. Udarregiko gurasoek bi gai horiei buruzko iritzia emateko aukera dute.

Soberakinen inguruan, "maileguaren amortizazioa, banka etikoa eta aniztasunaren gela jarri ziren mahai gainean". Aukera horiek guztiak bozkatu ahal izateko, maiatzaren 25eko Batzar Nagusiari begira, sinadurak biltzen ari dira.

Biziberritu lantaldetik adi-

tzera eman digutenez, prozesu osoari buruzko informazioa, sinatu ahal izateko kontaktua, eta egindako proposamenei buruzko informazio gehiago Interneten topatuko duzue: biziberritu.wixsite.com/hasiera edo biziberritu@gmail.com posta helbidean.

## Ziortzakoak, Maliko haurren alde



Maliko haurrei eskola materiala bidaltzeko Ziortza Gazte Elkarte LH 5-6 mailetakoko ikasle taldeak asteotan antolatatu duen bilketa kanpaina arrakastatsua suertatu da. Larunbatean Potxoenean boro-

bildu zuten, aretoa goraino bete zutenek gogotik txalotu zuten antzezlan batekin. Liburutegian, Artzabalen eta Kiroldegian bildutako materiala ostiralean paketetan batu eta bidaliko dute.

## Zozketarik ez da egingo Udajolasen

Guztira, 4-12 urte arteko 179 haur eta gaztetxok izena eman dute Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak uztailearen 3tik 28ra antolatu dituzten udako txokoetan. Izen emate kopuruak ez du gainditu 200 lagunentzako zegoen plaza kopurua. Honenbestez ez da zozketarik izango. Eskaera guztiak onartu dira.

## Ekainaren 8an, bilera

Udajolasi begirako argibide gehiago, ekainaren 8an 17:00etan Sutegiko auditorioan antolatu dugun guraso bileran eskainiko dira.

## Sagastietan

### barrena bertsoan

V. Sagastiak Loretan egitaraua bete-betean da. Aurreko igandean, bertso ibilaldi bat abiatu zen Iruin Sagardotegitik. Jakoba Errekondo aritu zen azalpenak ematen, eta Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsoan.

### Astelehenean, Ane Labaka eta Iñaki Muruaren txanda

San Ixidro egunean ere izango da bertso-saiorik. Ane Labaka eta Iñaki Murua kantuan arituko dira eguerdiko 13:00ak aldera frontoi inguruan.



Iruin sagardotegitik abiatu ziren.

## Usurbil KE, guraso bilerak

Usurbil K.E.-k jokalariei gurasoekin bildu nahi du maiatzaren 27an, hainbat gai jorrazteko: kirol arloa, antolakuntza arloa eta galdera-eskaera. "Bilera hau oso garrantzitsua da eta zuen asistentzia beharrezkoa da".

10:00 Alebin eta infantil mailako neska-mutilen gurasoekin, Artzabalen.

11:00 Kadete eta jubenil mailako neska-mutilen gurasoekin, Artzabalen.

Argibide gehiagorako: usurbilke@gmail.com

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

# Andatza Eguna, bizirik



Deialdi ofizial eta ospakizunik egon ez arren, ez zioten hutsik egin urte luzeko tradizioari. Hainbat herritar igo ziren Andatzara maiatzeko lehen igandean.



**Erraustegiaren aurkako aldarria, gailurrean**  
Maiatzeko lehen igandean Andatzara igo zirenek aurrez aurre topatu zuten erraustegiaren aurkako aldarria, Usurbilgo gailurrean.

## Eskubaloiko kadete mutilak, Elxera



**Bigarren postuan amaitu dute Euskadiko Txapelketa eta horri esker Espainiako Txapelketarako sailkatu dira.**

Espainiako Eskubaloiko Federazioak erabaki du noiz eta non jokatuko duten Espainiako sektorea, Euskadiko txapeldu-norde ditugun Usurbil K.E.-ko kadete mutilek.

### F sektorean

Usurbildarrei F sektorea jokatzea egokitu zaie, Alacanteko

Elxen. Hauek izango dira aurkariak: C.B. Elche (Valentzia), BM Ciudad de Algeciras (Andaluzia) eta BM La Roca (Katalunia).

### Maiatzak 19-21

Alacanteko Elxen jokatuko dituzte partidak, maiatzaren 19tik 21era.



## Euskal Herriko txapelkunak

Euskal Herriko Pala Txapelketa irekia irabazi dute Miriam Arriagak eta Leire Galdosek. Biek Anoetako Su-Berri Elkartearen izenean jokatzen dute. Miriam ordea, herritarra dugu.

### Gizonezkoen paleta goma txapelketa

18 urtetik gorako usurbildarrei zuzendua. Maiatzaren 16a asteartean amaituko da izena emateko epea. 626 110 923 telefono zenbakira deitu edo email helbide honetara idatzi: huizip@gmail.com

## Eskubaloiko partidak

### Maiatzak 13 larunbata

- 09:15 Alebin neskek, Gipuzkoako Eskolartekoa (final zortzirenak): Udaregi 6-Andoain
- 09:15 Alebin mutilak, Gipuzkoako Eskolartekoa (final zortzirenak): Udaregi 6-Andoain
- 10:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketako finalerdia: Amenabar B ZKE-Pitch Bidasoa Irun A
- 12:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketako finalerdia: Amenabar A ZKE-Elgoibar
- 13:30 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udaregi B-Hernani ET C
- 14:45 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udaregi A-Eibar A
- 16:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udaregi D-Eibar B
- 17:45 Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast
- 19:30 Jubenil neskek, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Tecnifuelle Elgoibar

### Maiatzak 14 igandea

- 10:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa 3. eta 4. postuak.
- 11:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketako finala.

## Eskubaloia, selekzioa

### Maiatzak 13 larunbata

- 16:00 Kadete mutilen Gipuzkoako Selekzioaren saioa, Arrasateko Musakola Kiroldegian. Eneko Furundarena deitu dute.
- 18:00 Jubenil mutilen Gipuzkoako Selekzioaren saioa, Arrasateko Musakola Kiroldegian. Eneko Iribar, Joseba Errazkin eta Julen Nazabal deitu dituzte.
- 18:00 Infantil mutilen Gipuzkoako Selekzioaren saioa, Getariako Kiroldegian. Ekaitz Ibargoien deitu dute.

### Maiatzak 14 igandea

- 16:00 Infantil nesken Gipuzkoako Selekzioaren saioa Getarian. Udane Makazaga deitu dute.

## Pilota partidak

### Maiatzak 12 ostirala

- 20:00etan Aginagan kadete mailako partida: Galarraga-Goikoetxea

**Parti**  
Patriotas  
Iatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldia, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 2.000 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukaldia handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrena etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berriak. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldia, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperboru Ban. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukaldia handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berriak, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldia... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldia eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldia. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekileku,

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldia egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Pisua alokatzen da Kaxkoan: igogailua, bi gela, egongela, komuna eta sukaldiarekin. Orientazio ona eta eguzkitsua. 690 817 903

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukaldia, egongela, komuna eta sukaldia. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukaldia erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe

luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperboru 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrak ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreraren. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratuko, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da kafetegi batean lan egiteko. Astean zehar

egun bat eta asteburutan. Bidali kurrikulua-a posta kutxa 16 zenbakira 20170.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrerak altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astehenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria seguituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro<sup>2</sup>. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or-



Maiatzaren 11n bederatzigarrenez **zorionak Malentxu**. Irribarre alai horrekin ospatuko ditugu! Muxu goxoak etxeko guztien partez.



**Zorionak Rafael eta Pilar!** Maiatzaren 13an 50 urte ezkondu zinatela. Urrezko ezteiak. Zorionak bihotzez eta muxu handi bana etxekoan partez!


  
**ARTZABAL**
  
 BASERRIA · JATETXEA
   
 EGUNEKO MENUA KARTA
   
 PLATER KONBINATUAK
   
 OGITAR TEKOAK · TOSTAK
   
 MENU BEREZIAK
   
**943 36 91 39**
  
[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)


  
**Kima**
  
 MASAJE LEKUA
   
 · KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
   
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA
   
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97
   




duka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzan). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Apropoza pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Ettxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehalanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeko garbitzen. Tel 632 587 450.

Ettxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduka lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835/ 697 887 581.

Ettxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zer-

bitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jate txek batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez

edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Ettxeko eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan

eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Ettxeko, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Ettxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material gutxiarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

#### BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano

grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektriko (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupukoa. Arroxa. 646 305 658.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostiatik elkarteetan. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarretako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, libururuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehentik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 11** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 12** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 13** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 14** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 15** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Asteartea 16** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Maiatzak 11 - maiatzak 21

**Osteguna 18** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 19** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Igandea 21** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda maiatza

## 12 ostirala

- **Arrate Egoitzako ikasleen lanen erakusketa** maiatzaren 14ra arte. Ostiralean: 17:00-20:00. Larunbatean eta igandean: 09:00-13:00.
- **Erraustegiaren aurkako elkarretaratzea** 19:00etan Mikel Laboa plazan.

## 13 larunbata

- **Herri Urratsera oinez** Bi eguneko irteera edo egun bakarrekoa. Xehetasun gehiago, 23 or.
- **Ate Irekien Eguna Lanbide Eskolan.** 11:00etatik aurrera.
- **Ken Zazpiren kontzertua** Dema plazan. 00:00etan.

## 14 igandea

- **Herri Urratsera oinez** Bi eguneko irteera edo egun bakarrekoa. Xehetasun gehiago, 23 or.

## Astehenean, San Ixidro eguneko ospakizunak

**S**agastiak Loretan ekimenaren baitan jaso dira San Ixidro eguneko ospakizunak. Bazkaria Artzabalen izango da, baina txartelak alde aurretik eskuratu behar dira.

- 10:15 Trikitilariak Kaxkoan zehar.
- 10:30 Meza Salvatore elizan.
- 11:15 Hamaiketako herrikoia frontoian.
- 11:45 Herri kirolak Dema plazan.
- 13:15 Bertso saioa Ane Labaka eta Iñaki Muruarekin.
- 14:00 Bertso-Bazkaria Artzabal Baserrian (Txartelak salgai Alkartasunan eta Artzabalen maiatzaren 13ra bitarte. Prezioa: 31 euro).
- Antolatzaileak: Alkartasuna Baserrita-



Mezaren ondoren, hamaiketako banatuko dute frontoian eta segidan hasiko dira herri kirolak Dema plazan.

- rreren Kooperatiba.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

### Arrate Egoitzako ikasleen lanen erakusketa Sutegin

- Aginagako Arrate Elkarteko kideen pintura eta eskulanean erakusketa.
- Epea: maiatzak 11-14.
- Orduetgia: -Ostegun eta ostirala: 17:00-20:00. -Larunbat eta igandea: 09:00-13:00.
- Tokia: Sutegiko erakustaretoa.

### Larunbatean Dema plazan, Ken Zazpiren kontzertua

- Larunbatean Dema plazan eskainiko duten kontzerturako sarrerak aurrez erosi daitezke 12 eurotan, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan. Egunean bertan, 15 eurotan taberna horietan bertan edota Sutegin.
- Antolatzailea: Hurbilago.

### Datozenak



### Haurrentzako antzerkia: "Telmoren abenturak"

Imajinatu zure burua puzzle bat dela. Imajinatu pieza batzuk puskatzen zaizkizula. Imajinatu ezberdina zarela. Imajinatu. Telmo Irureta eta Amaia Ruiz de Galarreta "Telmoren abenturak" kontatzera hurbilduko dira Sute-gira.

- Maiatzak 16 asteartea. 18:00etan Sutegin.
- Nori zuzendua: LH 1 eta LH2.

### Hitzaldia: "Hezkuntza emozionala"

Jon Berastegik "Hezkuntza emozionala: emozioak hauteman, ulertu eta kudeatu" izeneko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 17an, Udarregi Ikastolan.

- Maiatzak 17 asteazkena. 17:00etan Udarregi Ikastolaren eraikin gorriko bigarren gelan.
- Antolatzailea: Hitz Aho.



*Amonaren lapikoa dastatu nahi baduzu...*

**Gure Elkartea**  
~ Santuenea ~

Eguneko platera 6€ - Eramateko aukera! Deitu: 686 55 41 45

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S. L.

## 661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

# Edertu zaitez!

**Jwar**  
ESTETIKA

**EZKONDUKO ZARA?**  
**EMAZTEGAI TRATAMENDU BEREZIAK**  
**TRATAMENDU KOKTEL EZBERDINAK**

Munolurra 2, Usurbil 943 571 680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



**JUBILATUENTZAT**  
**AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANITZEN DITUGU

## MAIATZEKO ESKAINTZA

**GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:**  
LEHEN 30€ - ORAIN 25€

**ADINAREN AURKAKO TRATAMENDU BEREZIA:**  
LEHEN 40€ ORAIN 35€

**AURPEGIKO GARBIKETA:** 20€

**424 SAKONEKO NUTRIZIO ZELULARRA:**  
LEHEN 50€ ORAIN 40€



Egurditan irekial  
Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

## TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA

**Eskola adinerako berezia**

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontsarbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:  
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila destilatuz eta Bisabobolez indartua



Zorrien aurkako lozio ORGANIKOA



Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

# Zorionak Usurbil!

